



*Prensa oharra*

**Retailaren sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako bat da**

## **EROSKI-K HIRU SARI ATERA DITU URTEKO MERKATARITZA SARIETAN**

- Seigarrenez jarraian, kontsumitzaileek EROSKI aukeratu dute *online* supermerkatu onena
- Urteko Merkataritza Onenaren Saria ere jaso du, Hurbileko Supermerkatuen eta Frankizien kategorietan

Elorrio, 2022ko urriaren 21a.- [EROSKI](#)k hiru sari atera ditu 2022-2023ko Urteko Merkataritza Sarien hamabigarren aldian. Sariak zehazki izan dira *online* merkataritza, hurbileko supermerkatuetan eta frankizietan. Aitorpenok kontsumitzaileek egin dituzte kontsumitzaileen Espainiako lehiaketarik handienean eta *retail*-aren sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako batean.

### **Urteko WebShop saria**

Seigarrenez jarraian, EROSKIren Interneteko dendak jaso du urteko WebShop saria *online* supermerkatuen kategorian. Bozketan, honelako aldaerak baloratu dituzte kontsumitzaileek: kalitate-prezio erlazioa, produktu sortaren ugaritasuna, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak eramateko zerbitzua, promozioak eta eskaintzak, ordaintzeko erak eta erabiltzailearen esperientzia.

[EROSKI online](#) supermerkatuak 15.000 erreferentzia baino gehiago ditu elikagaietan eta freskoetan, eta hemendik aurrera elikadura arlokoak ez diren beste 4.000 erreferentzia izango ditu (bazarra, etxetresna elektrikoak eta ehunak), ziurtatzeko bezeroen beharrak ahalik eta gehiena estalita daudela erosketan egiten dutenean. *Online* supermerkatua mundu fisikoan dauden abantaila komertzialak aurkezten dituen zerbitzu bat da; erosketan esperientzia uniforme bat bermatzen du kanalen artean, eta *online* erosketan doan eta berehala jasotzeko posibilitatea ematen du.

*"3.500 bezerori egin diegun barne inkesta baten datuen arabera, kontsumitzaileek helarazi digute gure zerbitzuaren omnikanalitatea balioesten dutela denda fisikoko erosketan guztiak klik bakarrean dituztelako eta online erosketan lasterra egin dezaketelako, baita eskariak doan eta berehala jasotzeko gure sare zabalagatik ere. Era berean, aurrezteko erraztasuna estimatzen dute, eskaintza dauden produktuak berehala aurki baitituzkete eta elkarrekin konbinatu. Orobat balioesten dute eskariak banatzen dituztenen puntualtasuna eta tratua, goizeko ordubietan erosketak egiteko*

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online** prentsa aretoa



*posibilitatea eta zerbitzua hurrengo egunean jasotzekoa eta aurretik abisatzea hutsegiterik eta ordezkapenik baldin badago",* esan du EROSKIren Online negozioaren zuzendariak, Mari Mar Escrigek.

### **Supermerkatu onena hurbileko supermerkatuetan eta frankizia arloan**

EROSKI da, era berean, kontsumitzaileen proposamenik onena 'Hurbileko Supermerkatuen' eta 'Frankizia supermerkatuen' kategorietan.

*"Sari hirukoitz horrek berretsi egiten du kontsumitzaileek bere osoan estimatzen dutela guztitarako kanalekin egiten dugun proposamena, gaur egun dituen premiak estalita ikusten baitituzte kanal eta formatu guztietan. Izan ere, EROSKIIn, egunero berritzen dugu, bezeroarekin dugun harremana hobetzen joateko eta proposamen erakargarri eta pertsonalizatu bat egiteko",* esan du EROSKIren Supermerkatuen ta Prozesuen arloko zuzendariak, Alberto Madariagak.

Sariok aitorten bat egiten diete Zurekin eredu komertzialaren ardatz nagusiei, zeinaren ezaugarri baitira tokiko eta sasoiko produktu freskoen aldeko apustua, elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren sustapena, arreta pertsonalizatua, eguneroko erosketako aurrezpen forma berriak eta jarduerak ingurumenean duen inpaktua gutxitzeko berrikuntza teknologikoak.

EROSKI frankizian ere eredu komertzial hori ezartzen dute, zeinak EROSKIren denda propioen ezaugarri, aurrerapen eta abantaila guztiak baitakartza. Formatu komertzial bat baino gehiago ditu; nabarmentzekoak, batetik, EROSKI City, 250-400 metro koadroko hurbileko supermerkatuetarako —elikagaien arloko sorta zabala, freskoak zerbitzu librean eta arreta pertsonala eskaintzen dituena—, eta, bestetik, EROSKI Rapid, 150 metro koadroko formatu ultra hurbila eta komenentziakoa —erosketa eroso, laster eta oso bat egitea posible egiten duena eta ia edozein kokapenetara egokitzeko gaitasuna duena (hiriak, gasolindegia, unibertsitateak, zona turistikoak, hondartzak...)—.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online** prentsa aretoa